21

AZTERKETA. **GAI GUZTIAK.**
2019-06-27

Lehia perfektuko merkatu batean **480** enpresa daude, denak berdinak. Horietako bakoitzaren kostu totaleko funtzioa epe laburrean honako da: **KT=** $6q^2 + 4q + 2.400$. Merkatu horretan eskari funtzioa honakoa da **D:** $Q^D = 4.240 - 4P$. Kalkulatu:

) banakako eskaintza-funtzioa (q^S); adierazi itxiera-prezioa.
) merkatuko eskaintza-funtzioa (Q^S).
) merkatuko oreka: saldutako unitateak eta prezioa.
) oreka-mailan enpresa bakoitzak saldutako unitateak eta mozkinak.

(2,50 puntu)

Monopolio-lehia egiturako merkatu batean, saltzaile baten kostuak eta eskaria ondokoak dira: **$KT=4Q^2+40Q+20.000$** eta **D: $P^d= 10(200-n) - 4Q$** ("n" aldagaiak enpresa kopurua adierazten du).

a) Une zehatz batean **68 enpresa** daude (**n=68**). Kalkulatu epe laburreko salmentak (P eta Q) eta mozkinak (π).

b) Kalkulatu epe luzeko salmentak (P eta Q) eta mozkinak (π).Zenbat enpresa egongo dira industrian?

(1,50 puntu)

- Merkatu batean bi saltzailek produktu homogeneoa eskaintzen dute. Eskaria eta saltzaileen kostuak ondoak dira: **D:P =74-2Q** eta **KT=2Q**. (Oharra: **Q=Q1+Q2**)

a) Kalkulatu Cournot-en (C) soluzioa. Kalkulatu Q, P eta mozkinak.

b) Kalkulatu Kolusioaren (K) soluzioa. Kalkulatu Q, P eta mozkinak.

(2,50 puntu)

4.- Eroski eta Mercadona enpresen estrategiak eta mozkinak ondoko irabazien matrizean jasotzen dira. Enpresa bakoitzak ireki ala itxi egin behar duen erabaki behar du.

a) Aztertu estrategia dominatzaileak eta Nashen orekak existitzen diren ala ez.

(1,00 puntu)


		Mercadona	
		Igandean ireki	**Igandean itxi**
Eroski	**Igandean ireki**	π_E= 2 M. euro π_M= 2 M. euro	π_E= 5 M. euro π_M= 1 M. euro
	Igandean itxi	π_E= 1 M. euro π_M= 5 M. euro	π_E= 3 M. euro π_M= 3 M. euro

5.- Beheko grafikoak **monopolio naturala** erakusten du.

a) Zergatik deitzen zaio horrela? Zein da ezaugarria?

b) Grafikoan ematen diren datuekin kalkulatu monopolista arruntaren mozkinak, merkatu boterea eta gizarte kostua.

c) Grafiko berdinean ikasi ditugun erregulazio aukerak seinaleztatu, behar dituzun kalkuluak egin eta kasu bakoitzean ikusten dituzun abantailak eta desabantailak azaldu.



(1,50 puntu)

6.- Merkatu-hutsegiteak:

a) Industria batean **kanpo-eragin negatiboak** badaude lehia perfektuko soluzioa ez da efizientea. Labur azaldu **hitzez** horren arrazoia eta ondorioak (Q eta P).

b) **Grafikoki** adierazi kanpo-eragin negatiboak dauden industria horren **LP** eta **SE** soluzioak.

(1,00 puntu)

...n Arloko Errektoreordetza

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA (SED/IEZ)

